

# Ze barri?

2000.ko  
MAIATZA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

40 zkia

## *Urlatik Landetara*

Elkarriketa:  
Asier Serrano, Lorelei tuldeko  
kidea

Erreportaia:  
Baserritarren etorkizuna  
eztabaidan

Baserri produktuen VI.  
Ferixiaren egitaraua


**Baserri mundua,  
etorkizunari begira**



**Udalaitz, S.L.**



**ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA  
 ALUMINIOA-EGURRA  
 PERTSIANAK ETA OSAGAIK**



Araba Ibilbidea, 17  
 Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06  
 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
 E-mail: kurtzebarrilehioak@euskalnet.net

San Pedro 9, 1 behea  
20540 ESKORIATZA  
Tel. 943 71 54 34

**ARGITARATZAILEA:**  
AXTROKI  
Kultur Elkartea

**ERREDAKZIO KONTSEILUA:**  
Imanol Garmendia  
Garikoitz Kortazar  
Andoni Bengoa  
Lorea Agiriano

**KOLABORATZAILEAK:**  
Aitor Uribetxeberria  
Aitor Urrutia  
Asier Errasti  
Juanma Pagalday  
Iñaki Agiriano  
J.J. Arrieta  
Jon Errasti  
Museo Eskola  
Lourdes Martinez

**PUBLIZITATEA:**  
Miren Lezeta  
Oier Garai

**INPRIMATEGIA:**  
Eguzkigraf, Koop. Elk.

**TIRADA:**  
2.000 ale

**LEGE GORDAILUA:**  
SS - 200/99

**ISSN:**  
1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten  
aldizkarian adierazitako esanekin eta  
iritziekin.



ESKORIATZA



GATZAGA



## 'Mundu zoriontsu bat'



**"Komunikabideek,  
telebistak batez ere,  
informazioa eta  
kultura  
entretanimendu  
bihurtu dituzte"**

George Orwell idazle ingelesak, 1984 liburu ezagunean, guztia kontrolpean izango zuen Anaia Handiak hitz egiten zigun. Anaia Handiak liburuak, informazioa, egia... izkututako zizkigula eta zapalkuntzaren bitartez, gure autonomia, heldutasuna eta historia bera lapurtuko zizkigula aurreikusten zuen. 'Anaia Handiak unero zelatuko zaitu' zioen Orwellek bere liburuan eta hori abiapuntutzat hartuta, izugarriko arrakasta izaten ari den telebista saioa sortu da egun, guztiok ezagutuko duzuen 'El Gran Hermano'. Ez pentsa baina, programa horretaz hitz egingo dizuedanik gaurkoan. Orwellen garaikide eta herrikide izandako Aldous Huxleyk idatzitako 'Mundu zoriontsu bat' liburuaz aritzea baita nire asmoa. Izan ere, komunikabideek eta batez ere telebistak hartutako norabidea ikusita, bere iragarpenek gure gizartea hobeto deskribatzen dutela deritzot.

Orwellek gure zapalkuntza ekarriko zuen Anaia Handiak hitz egiten zuen bitartean, Huxleyk herritarrak bere pentsatzeko gaitasuna ezabatzen duten teknologiak maitatzera iritsiko ginela zioen. Orwell liburuak legez kanpo utziko zituztenen beldur bazen, Huxleyk dagoeneko inork irakurtzeko interesik ez izateari eta ondorioz, hori egiteko beharrik ez izateari zion beldur. Orwellek informazioa ezkututako zigitela aurreikusten zuen bitartean,

Huxleyk kontrakoa zioen. Hau da, gehiegizko informazioaren bitartez, herritarrak pasibitate eta berekoikeriara eramango gintuztela uste zuen. Azken finean, Orwellek etorkizunean kultura bera gatibu izateko aukerari zion beldur eta Huxleyk kultura guztiz azaleko batera iristeko aukerari. Komunikabideen aroan bizi garen honetan gure gizartea informazioaren eta kulturaren izugarriko tribalizazioa bizitzen ari dela ikusirik, Huxleyk arrazoi ez ote zuen pentsatzeko garaia iritsi zaigu.

Komunikabideek, telebistak batez ere, informazioa eta kultura entretanimendu bihurtu dituzte. Albistegiek beraiek ere, entretanimendua dute lehentasuntzat, eta ez heziketa edota hausnarketa bultzatzea. Ordu erdi eskasean, munduaren nondik norako nagusiak "ulertarazten" dizkigute. Tartean ez da bi minutu baino gehiago merezi duen albisterik izango ('Euskal gatazkari' buruzkoa ez bada, noski!), eta gainera, ziur izan irudi ikusgarri batekin lagundutako edozein berrik lehentasuna izango duela hautaketa egiterakoan. Guztia borobiltzeko, edozein albisteren ostean publizitatea edota kirola etorriko da albiste horri garrantzia kentzera. Munduko gerrate krudelenaren berri eman bezain laster, Audi etxearen azken modeloaren iragarkia emango dio paso irribartsu aurkezleak edota bestela, Rivaldok orkatila bihurtu duela ezagutaraziko digu azalduz. Gauzak baina ez dira hor geratzen. Informazioa tribalizatu eta guztia espektakulu bihurtzeaz gain, munduaren ikuspegi bat saltzen baitigu telebistak. Mundu hori gainera, mundua antolatzen behar den moduaren eredu bihurtzen da. Esan beharrik ere ez dago mundu hori norabide bakarreko globalizazioaren erakuslerik argiena dela.

Guzti horren aurrean Aldous Huxleyk hurrengo galdera egiten zuen: 'Zergaitik egiten dugu barre eta zergaitik utzi diogu pentsatzeari?' Argi dago gure gizartearentzat hona litzatekela berandu baino lehen galderi horri erantzuna bilatzea, azken finean, Huxleyk 'Mundu zoriontsu bat' liburuan deskribatzen duen egoera Orwellek '1984' ezagunean deskribatutako zapalkuntza bezain beldurgarria baita.

Asier Errasti

**LABURREAN**

**Haurren eguna**

Haurren Eguna egin zen Eskoriatzan, baina, bertako haurrik ez. Giroan somatu zuen bertakoen falta: ea datorren urtean posible den!. Aurten, Soraluze, Oñati, Bergara eta Arrasateko dantzari gaztetxoek bisita izan dugu. Goizean goizetik, kaleetan barrena gogotsu aritu ziren dantzari gazteak. Eguardian herriko plazan bildu eta, Arrasateko Lore Gaztea eta Arrostitzeko umeez erakustaldi ederra eskaini zuten. Bazkaltzera, herritar bolondresen etxeetara joan ziren umeez. Baina aurten ere, ume asko eta etxe gutxiegia, partaidetza eskasa izan dugu herrian kapotik zetozen dantzari hauen kaltetan. Arratsaldeko Alardean bikain aritu ziren gaztetxo hauek herriko plazan dantzari.

**Sortu da Goitb**


Maiatzaren 22an izan zen Goiena Telebistaren (Goitb) lehen emisioa. Hasiara batean, Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagan izango dugu ikusteko aukera, baina, udazkenerako Deba Goienerako gainontzeko herrietara ere emititzea espero da. Eskoriatzan gainontzeko kanalak bezala hartuko dugu Goitbren katea.

Aste honetan emisioak herrietako plazatik egin dira eta Eskoriatzari ostegunean egokitu zitzaion txanda. Goitbrako gure herriko albisteak biltzen eta lantzen Lorea Agiriano (Ze Barri?ko kazetaria) arituko da aurrerantz.

**Igerilekua laster zabalik**

Obrak atzeratuta daudela ematen duen arren, udako denboraldia hasten denerako, Ekaina erdialderako, irekiko omen da haurrentzako igerileku berria.

**Aitzorrotz eguna argazkitan**



**Ezkerrean:** Antonio Errartek argi utzi zuen sukaldarako esku trebea duela. Argazkian burduntzian erretako bildotsari meju kea egiten.

**Behean:** Argazkiko hauek burduntzian erretako bildotsa jan ote zuten ba, horren gustura egoteko?



Urtero bezala, Don Cruzek, Bolibarko apaizak, eman zuen Santa Kurtz ermita aurrean mesa.

## ESKORIATZAKO VI. BASERRI PRODUKTUEN FERIXIE

Hurrengo ekainaren 3an zapatua, azken urteetan bezala, Baserri Produktuen FERIXIE ospatuko da Eskoriatzan. Laugarren urtea da, Jose Arana-Almen ikastolak ekitaldi hau antolatzen duela eta esan behar, gero eta ohiartzun handiagoa lortzen ari dela.

Guztira, 75 postu inguru izango dira herrian zehar banatuta. Baserritar postuak 23, artisautzakoak 31, ikastolakoak 8-10, tresneriakoak 3 eta abereenak 6-7. Honetaz gain Txorimaloen txokoa eta haurrentzat gaztelu puzgarriak egongo dira.

Festari giro koloretsuagoa emateko antolatzaileek hurbiltzen diren guztiei baserritar

jantzita etortzeko gonbidapena egiten diete. Gogoratu gainera ordu bi terdian bazkari herrikoia izango dela eta III. Txorimalo lehiaketan ere guztiek parte har dezakezutela, hori bai, maiatzaren 31 baino lehenago izen eman behar duzue.

Herri bazkarirako txartelak 1500 pezetatan salgai daude ondorengo lekuetan: Ikastola (714486), Mirentxu, Urrestilla, Arrano, Benta Motz eta Adeli liburudenda.

### EGITARAUA

- 9etan** Etxaflero jaurtiketa.
- 9'30etan** Txistularien kalejira.
- 10'30etan** Ferixa zabaldu
- 11etatik 14etara** Gaztelu puzgarriak. 0-12 urteko haurrentzat. Tailerrak.
- 11'30etan** III. Txorimalo lehiaketa. Trikitilarien Kalejira.
- 13etan** Txalapartariak eta Herri Dantza plazan.
- 14etan** Errifaren zozketa eta sari banaketa.
- 14'30etan** Herri Bazkaria dantzaldiarekin Frontoian.



**Eguraldiak laguntzen badu, giro ederra izango dugu herriko kaleetan.**

## Gazte Asteari errepasua

Gazte Asteak oso harrera ona izan du. Antolatu ziren hitzaldietara orohar, jende ugari hurbildu zen. Bestalde, jai giroan antolatu ziren ekintzek ere arrakasta izan zuten: Ikasleen Gauean ikaslez lepo izan genuen herria eta Aitzorrotzeko Akelarrean ere giro ezin hobean pasa zen gaua.

Kalamudia eta Kirolari Gazteak hitzaldietan izan zen jendearen partearitze handiena. Kanpoko jendea ere dexente etorri zen hauetara. Aldiz, EHE eta Okupazioa gaitzat izan zuten hitzaldietan herritarren presentzia izan zen nabariagoa.



**Kirolari gazteak mahai inguruan**

Ikasleen Gaua oso ondo atera bazen ere, zerbait falta izan zuen: Dantza Lehiaketa. Eskoriatzarrok ez gara horrelakoen oso zaleak izaten,

normalean, baina, ikasleen aldetik, zerbait gehiago espero zitekeen.

Akatsak ere egon dira dena den. Bi Luma taldearekin ez zen tratu zuzenik egin eta ez ziren etorri. DUINAKo kideek, berriz, ez zuten etortzerik izan. Baina, esakerak dioen legez, akatsetatik ere ikasten da eta Gazte Asanbladakoek ere, aurrean izandakoetatik ikasiko zuten. Hurrengo urteko Gazte Astea izan dadila aurtengoa bezalakoa edo hobea. Parte hartu duzuen guztioi zorionak!

  
**DEBA GARAIA**  
 Inmueble agentzia

Baserriak eta lur sailak salgai, Aramaio, Apotzaga, Arrasate, Elorrio, Bergara eta Sorluzen.

Maalako Errabala, 31 behea  
 Tel.: 943 77 13 02

  
**DEBA GARAIA**  
 Inmueble agentzia

Transakzio, eragiketa fiskal eta judizialak egiteko tasazioak.

Maalako Errabala, 31 behea  
 Tel.: 943 77 13 02

  
**DEBA GARAIA**  
 Inmueble agentzia

Eskaera handia dela eta, saltzeko edo alokatzeko pisuak behar dira Eskoriatzan.

Maalako Errabala, 31 behea  
 Tel.: 943 77 13 02

**MIRENTXU**  
**TABERNA**

Tfnoa.: 943 714167

*Kafe goxoa hartzeko*

## Eskoriatzako Ingurugiro astea

Maiatza amaitzen ari da, baina ez da nolanahiko hilabetea izan Eskoriatzan. Gazte astea, Aitzorrotz eguna... eta gainera Ingurugiro astea. Ekitaldi asko eta asko izan ditugu hil honetan.

Maiatzaren 7tik 14ra, Eskoriatzako ingurugiro astea ospatu da. Aitzorrotz egunarekin hasera eman zitzaion, inguruko animalia eta landareak ezagutzeko ibilaldiarekin, zuhaitz enborren erakusketa eta lehiaketa eta sari banaketarekin. Amaiera aldiz 14ean eman behar zitzaion, baina azkenik maiatzaren 20 zapatuan egin zen inguruko mendi eta erreken garbiketa. Bitartean hitzaldi ugari, tailerrak eta erakusketa ezberdinak egon dira ikusgai Kultur Etxean.

Hitzaldiak Unibertsitatean

ospatu dira eta jendea dexente hurbildu bada ere, esan behar bertan jende gehiago ikustea gustatuko



Enrikek jaki transgenikoen inguruko informazio zehatza eskeini zuen

litzaigukela.

Lehen egunean Jose Allende etorri zen eta "Hazkuntza gabeko garapena" ideiarekin atzean dagoen guztia azaldu zigun. Enrike Gisasola eibartarrak janari transgenikoen inguruko hainbat xehetasun eman zizkigun. Tomateari luzaroan fresko mantentzeko, arrainaren genak sartzea posiblea dela pentsatze hutsak hileak puntan jarri zizkigun bati baino gehiagori.

Txatxilipurdik antolatutako umeentzako jolasak izenburupean bideo emanaldia ere izan zen plazan.

Ikus daitekeen bezala lan handia egon da guzti honen atzean, beraz zorionak antolatzaileei eta ea hurrengo urterako jende gehiago animatzen den parte hartzera.

## Ingurugiro Asteari "Auzolanakin" jarraipena.

Espero zena baino jende gutxiagok parte hartu bazuen ere, elkartu zirenak fin-fin ibili ziren bazterrak garbitzen: Depositoa, Bolibar erreka, Deba ibaia, Bidebarrieta...inguruetan zeuden zaborrrak jaso zituzten.

Batzutan, errazegi ahazten dugu Ingurugiroa zaintzeak duen garrantzia eta horren faktura gure inguruneak ordaintzen du: zaborrak alde guztietan, erreka zikinak... dira arduragabekeria horren adierazle. Gure herrian ere agerikoak dira horrelako aztarnak. Hau dela eta, larunbat honetan gazte kuadrila bat auzolanean aritu da Bolibar erreka (Olazar aldea), Deba ibaia (urjauzitik Labaderora), Depositoa eta Bidebarrieta inguruetak zaborra biltzen. Ekimen honekin ingurune horien edertasuna berreskuratzeaz gain, herritar askok izaten duen jokabide arduragabea salatu nahi izan dute.

Horretarako, herriko plazara eraman zituzten bildutako zabor guztiak; Ez ziren gutxi izan, gainera!.



Zabor asko jaso zuten mendiak garbitzen aritutakoek

Dozena bat lagunen artean, hogeitabi zabor poltsa bete zituzten larunbat arratsaldean. Baina, garbiketara aritu ziren leku horietan denetarik aurkitu ei zuten: txapa zaharrak, frigorifikoak, armairuak, karroak... Arduraz jokatzuz gero, ez litzateke horrelako zaborrik jaso beharrik egongo.

**TOKI ALAI**

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA**

**EROSLE**

HARATEGIA,  
FRUTATEGIA eta  
BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3  
Tfnoa: 943 714546

**egizabal**  
**o i n e t a k o a k**

ARRASATE - Olarte, 14 - Tf. 943 79 66 01  
BERGARA - Bidekurutzeta, 13 - Tf. 943 761228

# ASIER SERRANO

## Poeta eta abeslaria

Eibartarra da Asier eta azken hiru urteetan Eskoriatzan ibili da irakasletza ikasketak egiten. Literatura asteak ekarri du berriro gure artera eta nostalgia apur bat sentitzen duela ere aitortu digu.

**1. Nola ikusten duzu zure burua, abesten duen olerkari bezala edo erreztatzen duen abeslari bezala.**

Bueno... bitatik badaukat ez?. Abestiak egiten dituen poeta eta idazten duen abeslaria.

**2. Zure poema eta kantuetan amodioa eta gorrotoa askotan elkarrekin doaz, banaezinak direla ematen du batzutan. Benetan ala dela uste al duzu?**


Bai.. niri, aparte, maitasuna ez da interesatzen zaidan gauza bat, oso gauza pertsonala dalako, beti joan izan dut maitasunaren inguruko gaietara. Maitasuna zuhaitz bat bada, nik adarretara jotzen dut, baita sustraietara ere. Beti interesatu izan zait desiua, pasiuia, gorrotoa, nik uste dut denean dagoela. Bakeaz hitzegin behar dugunean gorrotoaz ere hitzegin behar dugu eta gauza batek ez du bestea kentzen. Nik uste dut gorrotoa pose bat dela, maitasunaren berezitasun moduan sartzen dut gorrotoa. Gorrotatzen dena maitatzen da eta maitatzen dena gorrotatzen da.

**3. Hiru urte igaro zenituen Eskoriatzan, iaz amaitu zenituen hemengo ikasketak. Asko "ikasi" al duzu Eskoriatzan?**

Bai, batez ere jendearekin tratuan ikasten da eta alde horretatik, jende asko ezagutu dut eta ikasi ere asko ikasi dut, ez irakasletza ikasketetan bakarrik, nik esango nuke hemen jendearekin harremanetan asko ikasi dudala.

**4. Iaz amaitu zenuen irakasletza karrera, zertan zabilta orain?**

Gehienbat aldizkarietan kolaboratzen, kontzertuak ematen, beste batzuentzat hitzak idazten, eta gero Euskadi Irratian daukaten programan. Lortu dudana izan da literaturaz eta musikaz bizitzea, edo behintzat dirutxo bat jasotzea, baldintzapeko independentzia bat lortu dudala esan dezaket.



**“Nik zoragarri pasa nuen hemen, jende asko ezagutu eta hauekin asko ikasi nuen”**

**5. Ze oroitzapen gordetzen dituzu hemen igarotako urteetatik?**

Oroitzapenak azkenean penan bilakatzen dira, uste dut nostalgia apur bat sentitzen dudala. Zazpiretan etorri behar hori.. nik zoragarri pasa nuen hemen. Komilla arteko ikaste bat izan zen . Lehen esan bezala asko ikasi nuen nik hemen.

**VILLAR**  
**APAINDEGIA**

Tfnoa.: 943 715042

**GOLO**  
**GAZTE**  
**MODA**

Arana kalea, 13  
Tfnoa.: 943 71 42 99

**AZKOAGA**  
**ESTANKOA**

*Zure Zerbitzura*



**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 -bajo  
Tfnoa.: 71 51 20

# BASERRI MUNDUA, BIZIRAUPEN BORROKAN SARTUTA

Maiatzaren 15ean San Isidro eguna ospatu zen, baserritarren eta nekazarien patroia. Bibliak dienez aingeruak lagundu omen zioten San Isidrori lurra lantzen, eta noski, honek lana asko errazten du. Gaur egungo nekazariak horrelako laguntza jaso ez eta gainera ekonomian oinarritutako sistema honek eta batez ere multinazionalak, bitzta erraztu eta lagundu ordez, ia ezinezko egiten diete baserritarrei beren betiko lanean aritzea.

**B**izimoduak, orokorrean, bere abioa izugarri azkartu duen garai hauean, baserritar askok baserriko bizimodua utzi eta kalera jo du bizitzera. Urteetan gure kulturaren sustarria izan den bizimodu mota honek aldaketa izugarriak jasan ditu azken bi hamarkadatan. Desagertzeko arriskuan dagoela esatea gehiegizkoa izan daiteke, baina ezin ukatu, baserritar munduak izan duen gainbehera handia.

Garai batean baserri lanetik bizitzeko, gogoia besterik ez zen behar, lanerako gogoia, orain aldiz, gizartearen aldaketek eta ekonomiaren bilakaerak zaildu egin du asko baserri lanetik bizi ahal izatea. Okela nahiz esnearen prezioen jeitsiera nabaria izan da azken urteetan eta aspaldian bizimodu hau errentagarri bazen ere, gero eta gogorragoa bihurtu da. Barazki eta animaliak haziz bizitzeak lan handiaz gain, zailtasun

izugarriak ditu. Horregatik, baserritar asko kalera jeitsi dira, kooperatibetan nahiz beste lantegietan lan egitera. Agiña baserriko Ricardo Zabalak esan digu, nola garai batean, duela 30 urte, posiblea zen baserritik ondo bizitzea, ez zegoela arazo handiegirik. Gaur egungo egoera oso ezberdina dela esan digu eta baserritar gehienek alde egin dutela. Hala ere baserriko bizimodua ezin alde batera utzi eta bere inguruko baserrietakoak oraindik egunero etortzen omen dira baratzan lana egitera. Agiña baserriak 400 urte baino gehiago ditu, baserri benetan aintzinakoa eta hau bezala inguruko baserriak ere ez dira atzo eraikitakoak; Nordebizi, Otzaibe eta Zubiste Bolibarren; Iturralde Gaztainadui aldean, Mendiolan, behiak dituen Zugasti.

Gaur egun behiak dituzten baserriak asko gutxitu dira, esne fabrikatzaile handien tendentzia ez baita kalitatezko baserriko esnea ematea, baizik eta ahal den modu merke eta errazenean esnea lortzea. Enpresa munduko ideiek baserria desagertarazteko zorian utzi ahal dute, azken finean, baserria ez baita negozio handi bat, baizik eta bizitzeko modu bat. Agiña baserrian esan digutenez beraiek egur mozketari esker jarrai dezakete bertan lanean. Garai batean behiak izan zituzten baina orain behi gehienak saldu eta egurgintzan, pinuekin, aritzen dira.



Bolibar auzoko Otzaibe baserria, Aitzorrotz atzean duelarik

**RELE**

Faustino Legazpia

Tel. 943- 71 40 72

**TXALAPARTA**

JATETXEA

Tfnoa.: 943 715046

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

**kutxa**

*fundazioa*  
*fundación*



## Egungo sistema ekonomikoaren indarra

Gaur egun gutariko asko telebista aurreko izaki pasiboak bilakatu gara, mundu guztiko berriak ditugu momentuan, bonbardaketak zuzenean ikus ditzakegu, baina beharrezkoa al da hau guztia? Bizilagunak izan ditzakeen arazoez ohartzeko gai ere ez bagara, ez dago zalantzarik, karramarroen moduan atzeraka goazela. Auzolana, trukea, elkarlana, hau guztia interneten ez dute erakusten eta azken finean honenbestetan aipatzen dugun solidaritatearen oinarria dira.

Balore hauek dira baserriaren oinarria eta ahaztu ezean berreskuratu egin beharko genituzke, gure kulturaren oinarri dira eta.


Multinazionalen botereak balore berriak irentsiarazi nahi dizkigu iragarki garestien bitartez, diru ahal guzti duna, gauza guztien gainetik jarriaz. Honen ondorioak asko eta asko etorkizunean pairatuko ditugu, egun pairatzen ez baditugu jadanik.

EE.BB etan ez dago ia baserritarrik, ez dira beharrezkoak, gehiago produzitu, kosteak jeitsi,... diru gose horrek nekazariei bizimodua aldatu egin die.

Hala ere Euskal Herrian bada guzti honen aurkako mugimendurik (mundu osoan egia esateko), sustraiak berreskuratu nahi dituenak. EHNEkoak datorrena ikusita aspaldian hasi dira mugitzen eta beraien protestak ikusi ahal izan ditugu Donostiako Concha pasealekuan zein beste leku askotan.

## Baserri bizimodua eta bizi kalitatea

Urte askotan baserritarrei ez zaie zuten garrantzia eman, eta hiriko bizitza goraiatu den bitartean baserrikoa gutxietua izan da. Ez zaio behar bezain bat errekonozimendu eman. Orain hiritar batzuk baserrira jotzen du bizi lasaiago baten bila, lana bai baina ez beti presaka, azken finean




Agiña baserriko zaldi bat zelaia bedarrez garbitzen

bizi kalitatea askorentzat ez dago hiri barnean baizik herri txiki edo baserrietan. Gainera, litekeena da hurrengo urteetan hirietatik herri eta baserrietarako bueltatze hau gehiagotzea.

## Etorkizuna gu denon esku

Hau berreskuratzeko gazteek kontzientzatu behar dute eta erabaki zer nahi duten, baserri bizitza berreskuratu hala ez, baina dana dala baserria ere nahiz eta bere oinarriak aldatu ez, denbora berrietara egokitu beharra dauka bere biziraupena bermatu nahi badu.

Aldaketa beharrezkoa izaten da normalean, baina aldaketak modu egokian egitea beharrezkoa, hau da, buruarekin egin beharreko aldaketak dira, ez baitu zentzurik nor bere buruaren aurka harriak jaurtitzea.



Udaberri partean asko bueltatzen dira baserrira, baratzan lana egitera

## Pub ALDATZ

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

## OTZETA jatetxea

Aranburuzabala kalean

ireki berria

Tfnoa.: 943 71 55 07

# Lorea Diaz de Gereñu "Ertamerikan bizitzearen eguneroko erronka"

1991ko Abuztua pasatzera urtero Nicaraguan antolatzen diren Brigadatan lan egitera joatea erabaki zuenean, 2x urte zituen Lorea Diaz de Gereñuk. Matagalpako zonalde kafeteroan dauden hartzaindegietan lan egiten duten emakumeen formazioa zabaltzea zen udako brigada haren helburua. Matagalpan, kafe alearen bilketa emakumeen egitekoa da ere, eta hartzaindegietan lan asko egoten omen da. Hura izan zen Loreak Ertamerikarekin izan zuen lehen kontaktua, baina orduan ez zekiena, Ertamerikako brigada hark bere bizitza uste baina askoz gehiago aldatuko zuela zen.

**D**ena Managuan Mikel ezagutu zuenean aldatu zen, Nicaraguara bizitzera joandako oñatiarra bera. Abuztua igaro zen, eta Matagalpako brigada bukatu; Lorea ere etxera itzuli zen, baina hilabete batzuek Eskoriatzan pasa ondoren, 1992ko hasieran berriz artu zuen Ertamerikarako bidea, eta oraingoan, geratzeko asmoarekin zijoan.

Lore eta Mikelek Nicaraguako kostaldera jo zuten hurrengo urteetan beren bizilekua izango zenaren bila. Pazifikokoaren ertzean aurkitu zuten leku hori, zona "turistikoa" deitzen zaionean. Etxea itsasotik oso gertu lortu zuten, hondartzatik ehun bat metrora, inguruan zeuden egurrez egindako nicaraguarren etxeengandik, adreiluzkoa zelako bereiz zitekeena. Nicaraguarrek zituzten etxeak baina hobea zen beraiena, baina bizi, beste edozein Pochomiltar bezela bizi izan ziren bertan emandako urtean zehar: "Mikel goizeko seiretan jeikitzen zen egunero, txalupa batean beste bi gizonekin batera itsasora arrantzan egitera joateko. Eguerdian bueltatzen ziren, eta jasotakoa saldu egiten genuen. Nik artisau lanak egiten nituen larruarekin, gero aireportuan eta hiriko tabernatan cheleei (turistak)saltzeko. Bizitzak egunez egun egiten zuen aurrera, egunean egunekoak ekarriz. "Herriko dendan tomate bat, letxuga bat eta halako gauzak uzten genituen zorretan, eta hurrengo egunean, arrantzatutako

Somotoko zonaldean, adibidez, Martineztarrak ezagutu zituzten, aroztegi bat eta umeentzako eskola baten ardura zuen kooperatiba sandinista batean aritzen ziren familia. Hilean behin, beren etxera joaten ziren asteburua pasatzera. Hala ere, Nicaraguan gustora egon arren, bizilekuz aldatu, eta iparralderago, Mejikora joatea erabaki zuen



Sotomoko (Nicaragua) Martineztarren famili argazkia

arraina saltzen genuenean ordaindu".

Nohizen behin oporralditxo batzuk artzen zituzten Nicaraguako klima eta inguruez gozatuz, eta halabeharrak susto galanta eman zien kanpoan zeuden batean: Itsasikara batek Pochomileko kosta guztia desegin zuen, altxatutako olatu erraldoiekin 21 pertsona eramanez. Beren etxe aurretik kostara zeuden arrantzaleen etxola guztiak desagertu egin ziren, zeuden lekuan ondar ilunezko plaia utziaz. Berrero ere, itsasoak bizitza eman zein kentzeko duen gaitasuna erakutsi zuen.

"Chele"ak ere ez ziren arren, bertako jendeak ez zituen bertako bezela tratatzen, baina aurkitu zuten baita lagun onak bihurtu zirenak ere.

bikoteak. Lore Euskal Herrira bueltatu zen, eta hamar hilabete beranduago, Veracruzeko elkartu ziren biak.

"Egunez egun bizitzen ikasi genuen, hemen oinarritzat ditugun gauzarik gabe bizitzen.

Orain gehiago baloratzen ditut lehen niretzat garrantzirik ez zuten gauza asko".

## MEJIKOKO URTEAK

Veracruz en zapatari lana aurkitu zuen Mikelek, baina denbora gutxi barru laneko kontuek Orisabara eramane zuten bikotea. Orisaba 1500 metroko altueran dagoen hiria da, 400.000 biztanle ingurukoa, industrializatua, baina bere aktibitate nagusia kafearen inguruan mugitzen da. Lorek enkuadernazio tallertxoak ireki zuen hemen, eta biek gogor lan eginez aurrera egiten joan ziren pixkanaka. Nohizean behin egun batzuk jai artu eta mendira joaten ziren, Orisaba inguratuz ia 6000 metrotararte igotzen diren sumendietara, edo baita hirira, D.F.ra



“Kantauri” txalupa, Mikelen lantokia Mejikon



Lore eta Beñat erreka portuan

ere, lagunak bixitatzeraz. Bi urte eman zituzten bizimodu hari eusten, arik eta diru pixka bat egin eta berriz itsasoak bereziki Mikelengan zuen xarmari errendatu arte. Baina bazen orindik Mejikon egin zituzten hurrengo urteetan bizitzaz guztiz aldatzera behartuko zituen beste gauza bat, edo beste norbait, hobe esateko, Beñat jaiotzeaz bait zegoen. Haurra izateko Euskal Herrian, etxean hilabete batzuk eman ondoren, Lore Mejikora bueltatu zen. Bikotea hirukote zen orain, eta Mikelek itsasoan lan egiten zuen bitartean, amak haurra zaintzen zuen. Berriz ere itsasoaren ertzean, txalupa batean zuen Mikelek beharra, baina oraingoan beraiek ziren "patroi". Denborarekin furgonetatxoak erosi eta harrapatzen zuten arraina esportazio enpresa

batentzat banatzen hasi ziren, eta beranduago salerosketa bihurtu zen beren egiteko bakarra. Beraien inguruan aritzen ziren espainiar, galiziar eta euskaldun asko ezagutu zituzten, enpresak sortu eta aberasten ari zirenak, gutxi ziren beraiek bezela egunean egunekoak bizitzea hautatu zutenak, baina ezagutu zuten laguntzeko prest zegoenik ere. Bertakoekin ere ondo moladaten ziren, baina arrantzaleek, tratua zela eta beraiek baina diru gehiago zutenaren ustetan, konbientziagatik hurbiltzen zitzaizkien askotan. Izan ziren beren seme alabek lehen jaunartzea egiten zutela eta aitabitxi izate eskatu zienik ere (horrek peso pila bat suposatzen du aitabitxiaren poltsikotik ihesi) horrek zekarren gastuari aurre egiterik ez zutela esan arren.



Itsasoan lan egiteak leku zoragarriak aurkitzen lagundu zien askotan

Hiru urte igaro ziren horrela, baina denborarekin Euskal Herria bueltatzearen ideiak indarra hartu zuen. Ihaz, Otsailean, hala egin zuten azkenean, atzean Nicaragua eta Mejikon, ertamerikarren artean eta ertamerikar bezela bizitutako zazpi urte atzean hutziz. Itsasoaren bestaldean zer ikasi zuen galdetuta, zera erantzun zigun Lorek: "Egunez egun bizitzen ikasi genuen, hemen oinarritzotzat ditugun gauzarik gabe bizitzen. Orain gehiago baloratzen ditut lehen niretzat garrantzirik ez zuten gauza asko".

# Selektibitateko azterketa egiteko gertu? Ze iritzi duzue azterketa honen inguruan?



**AITOR FERNANDEZ**

Selektibidadia eta eskolako notak puntuatzeko modua aldatu egin da eta orain nere ustez hobeto da. Hemengoa gehiago baloratzen da eta ez dozu jokatzeko hainbeste examin horretan, baina ni beldurrakin joango naiz



**IRATI ZUBIZARRETA**

Nik selektibidadia kendu egingo nauen. Unibersidadian sartzeko azkenean azterketa bakar batean jokatzeko duzue dana. Selektibidadian nerbiak traizionau egiten doskue eta beraz nota bajau.



**ITSASO VILLAR**

Hiru egunetan bakarrik egitea oso gutxi da, ze azterketa zailenak egun berdinean jartzen dizkigute eta ezinezkoa da dena batera ikastea.



**AINTZANE AGIRIANO**

Ez dot ikusten beharrezkoa danik, ze beldurrakin joaten gare eta ez dugu erakusten dakigun dana



**OLAIA IDIGORAS**

Nik uste dot selektibidadia dala azterketa bat alperrik egiten dana eta kendu egin beharko zena, ni behintzat dagoeneko nahiko nerbiosoa nago.



**AMAIA SAINZ DE BITERI**

Nik uste dot kendu egin beharko zala, azken finean, UBI aprobatu baduzu zergatik egin behar dugu beste azterketa bat. Normalean, gainera, jendeari nota jeisten dio.

carpinteria  
**leniz**

**ARozTEGIA**  
Tfnoa. 943714936

**ANGEL Aseguroak**  
Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea • Tf. 943-715203 • ESKORIATZA

## GAIA

## Azken urteotan Euskal Herriko jaiotze-tasak behera egin du nabarmen...

Gremiokook larri gabiltza aspaldion jaiokuntza-tasak etengabe behera egin duelako gure Europa zahar honetan, eta are gehiago, Euskal Herrian bertan. Ez naiz, ez, pediatra, ezta ludoteka bateko monitorea; irakaslea naiz, eta gure esparruan beherakada honek sekulako triskantzak egin ditu lanpostuen kopuruan; eta egingo dituenak neurri eraginkorrek hartu ezean!

Ume eskasiak matrikulazioak murriztu eta lanpostuak urritzen ditu; bestetik, eskolen arteko lehia mesfidatia pizten du, eta harremanak ozpindu egiten dira (gurean ez da Lucas-en Izarren Gudarik, ezpada Umeak eskuratzekoa). Eta irakasleok, egia esan, ba ote dakigu besterik egiten?

Neurriak hartu beharra dago, hitzetatik ekintzetara pasatu. Zer iruditzen zaizue telebista ikusi edo Internetan nabigatu ordez, albokoari gozoki mintzatu eta diren prebio horiek guztiak bete eta gero, umegintzari buru-belarri lotuko bagintzaizkio? Bale, bale, egia da, agintariek ere lagundu egin beharko lukete, eurak ere horretara jarriaz eta umeak ekartzea neurri zehatzekin intzientibatuaz: amatasun-aitatasun baimenatarako erraztasunak, umeak ekartzea ekonomikoki sarituaz (badira horrelakoak Europan bertan). Baina, azken batean, guztion inplikazioa ezinbestekoa da. Bestela, lanari utzi eta kaputxadun komandoak antolatu beharko ditugu TB antenak eta errepetidoreak hankaz gora jartzeko, ea gurean ere New Yorkeko ez-dakit-noizko "apagoi" ospetsuak eragindako "baby-boom"arik izaten dugun. Agian, terrorismoaren apologia egiteagatik salatuko naute, baina neurea ez da Estatuaren aurkako gerra, lanpostuaren aldekoa baino. **Adi egon!**

TESIS. Jaiotze-tasak behera egin du. Eskoriatzan, Euskal Herrian, Espainian eta baita Ipar-Mendebaldeko herrietan orohar ere. Zenbaiten ustetan horrek etorkizuna eraikitzeke zama astuna ei dakar, ez baitu ziurtatzen gizartearen garapen eta sostengurako lanerako adinean izan beharko den behar beste populazio. Beraz, Gobernuak neurri zehatzak hartu beharko lituzkete jaiotze-tasari gorakada bat emateko.

ANTITESIS. Jaiotze-tasak behera egin du bai, baina Ipar-Mendebaldeko herrietan besterik ez. Hirugarren mundua deritzogun horretan kristoren gorakada egin du ordea. Izan ere, Munduan, datozen hamarkadetako arazorik larrienetakoa hiperpopulazioa izango da demografo eta aditu gehienen ustetan.

HIPOTESIS. Ditosozko tasa bedeinkatu hori behera doala eta jasotzeko neurriak hartu behar direla eskatzea etorkinei atek ixteko modua besterik ez da. Geure arazoak geuk konpondu eta besteok hor-konpon-Marianton.

SINTESIS. Egun gizartearen arazoak gizarte osoarenak dira, eta ez lau edo bost pribilegiatuenak, eta arazoek ez dute konponbiderik izango ikuspegi puxiketero batetik ez bada (globo puxika, global puxiketero). Honela bada, bertoko gizartearen zaharkitzearen eta hiperpopulazioaren arazoei aurre egin behar badiegu, jaiotze-tasa pake santuan utzi eta migrazioak eta mestizaia bultzatu beharko genituzke (mulatoak gogoko ditut -nere alabatxoarentzako, ojo-). Gizarte justu eta solidarioa nahi badugu behintzat. Eta benetan, ez berbetan.

PROTESIS. Aldameneko honek beharko duena jaiotze-tasa jasotzearen aldeko ekinean, jardunaren jardunean, honezkero erabat birrinduta izango duen hankarteko zilindrotxo ordezkatzeko. **Egon hadi!**

### jone eta jojo

Dema gogoak atal honetan, gai ezberdinen inguruan iritzi kontrajarriak azalduko dituzte bi kolaboratzailek. Iritziak ez dute zertan idazten duenak pentsatzen duenarekin bat etorri, hori dela eta ezinez sinatuta datoz. Hala ere norbaitek beraien izena jakin nahi balu ez legoke arazorik.

**HEZKUNTZA**

\* Erdi eta Goi Mailako Hezkuntza Zikloetako eskaintza jaso dugu. Hurrengo ikasturtean hezkuntza ziklorenbat ikasi nahiz gero, aurreizena emataeko epea: ekainaren 1etik 12ra.

**EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN**

\* Eusko Jaurlaritzak urtero lez, aurrean ere euskara lantzeko egonaldiak antolatu ditu, Euskal Herriko familia ezberdinetan udako hilabeteak euskara maila hobetuz igarotzeko. Epea: ekainak 3.

**UDAKO IKASTAROAK**

\* EHU-UPVk urtero antolatzen dituen Udako Ikastaroak. Izen emate epea: maiatzak 3an hasi eta plazak bete arte.

\* Udako Euskal Unibertsitateak, uztailan zehar Biarritz eta Iruñean burutuko diren ikastaroen berri eman du. Izen emate epea: maiatzaren 15etik ekainaren 16ra.

**AUZOLANDEGIAK**

\* SCI Madrilgo elkarteak urtero antolatzen duten auzolandegien informazioa jaso dugu. Mundu guztian zehar kokatutako lurraldeetan lan boluntarioak egiteko aukera.

**DIRULAGUNTZAK**

\* Debarroko Udalek deituta, kirol

materialak euskaraz sortzeko bekak. Epea: ekainak 1.

\* Kanpo merkataritza alorrean prestakuntza burutzeko bekak, Eusko Jaurlaritzaren eskutik, unibertsitate ikasketak bukatuak dituztenentzat. Epea: ekainak 3.

\* Leonardo da Vinci bekak, Europako enpresatan praktikak egiteko aukera, ikasketen azken urtetan egon edo ikasketak bukatu berri izanik, lan esperientziarik ez dutenei zuzenduta. Epea: uztailak 14.

**LEHIAKETAK**

\* Bergarako Pol-Pol Mendizale Taldeak, mendia eta ingurumena gaitzat hartuz, diapositiba lehiaketa antolatu du. Epea: ekainak 12.

\* Emakume Sailak, Komiki ez sexisten III. lehiaketa antolatu du. Lanak 17x24 zmko edo proportzio bereko formatu bertikalean eta 2-4 orri bitarteko luzerakoak. Txuribeltzean edo koloretan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: uztailak 21.

\* Gasteizko Indar Kultur Zentruak "Gaztebideo", gazteen bideo amateurraren VIII. Erakustaldia antolatu du. 99-2000 urtetan egindako lanak, 20 minututik beharakoak eta antzezle gehienek 21 urtetik behera izan beharko dute. Epea: uztailak 31.


\* "Ignazio Aldekoa" ipuin lehiaketa antolatu du Arabako Diputazioak, euskaraz edo gaztelaniaz, 12-25 orrialde bitarteko luzeeran idatziak. Epea: Irailak 8.

**JAIOTZAK**

- Jokin Salido Muñoz 00/04/05
- Mikel Mujika Agirre 00/04/09
- Yaiza Sanchez Tebar 00/04/17
- Malen Herruzo Diaz de Gereñu 00/04/20
- Unai Beloki Leceta 00/05/02

**EZKONTZAK**

- Luis Miguel Olivenza Carrizo eta Olatz Oñederra Iñurrategi 00/04/08
- José Ramón Bermudez Fernandez eta Mari Carmen Cañibano Galindo



**ESKORIATZA**

- Udaletxea ..... 943-714407
- Udal Bulegoak ..... 943-714532
- Udalzaindaria ..... 943-714407
- Euskaltegia ..... 943-792168
- Kultur-Etxea ..... 943-714688
- Gizarte-Laguntzailea ... 943-714688
- Kiroletxea ..... 943-715328
- Liburutegia ..... 943-713135
- Luis Eceiza ..... 943-714938
- Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
- Almen ..... 943-714964
- Museo-Eskola ..... 943-715453
- Ze Barri?** ..... **943-715434**
- Talde Antimilitarista ... 943-714537
- Irakasle Eskola ..... 943-714157
- Osakidetza ..... 943-714452
- Telesko ..... 943-714917
- Taxia ..... 943-714059

**BESTELAKOAK**

- Eskualde-Ospital (Arrasate) ... 943-795300
- Gurutze-Gorria (Bergara) 943-765576
- Ertzaintza (Arrasate) ... 943-797199
- Suhiltzaileak (Oñati) ... 943-792800
- Renfe (Zumarraga) ..... 943-721515
- Renfe (Gasteiz) ..... 945 232030
- Pesa (Arrasate) ..... 902 101210
- Larrialdiak (Arrasate) ... 943 771043
- SOS Deiak ..... 112

**ZE BARRI? Urlatik Landara aldizkariak, Publizista behar du**

**Interesaturik zaudetenok deitu telefono zenbaki honetara: 943-715434**



**1** **941ko argazkia:** Argazki hau, Errasti Abarrategui familiari ateratakoa da, Nagitturri baserrikoa (Maulandan). Kuadrila dexentea bildu zen argazkia ateratzeko, denak ere dotore-dotore okasiorako. Goian ezkerretik hasita: Xanti, Francisca, Marta, Juan, Gregori

lekaimea, Jazinto, Mercedes, Faustina, Felix. Behean eta ezkerretik: Lazaro, Paulita, Teresa, Fermin aitajauna, Fermin frailea, Agustina amandrea, Juan cruz, Marcelina eta Bittori.

Argazkia: Ixiar Erañak utzi digu.



## Etxeko Traste Zaharrak jasotzeko Zerbitzuaren EGUTEGIA

- Zerbitzua hilean egun batetik bira pasatuko da Ekainetik aurrera.
  - Trasteak jasotzeko egunak hileko 1. eta 3. Ostiralak izango dira
  - Jai eguna izango balitz hurrengo Ostiralera pasatuko da.
  - Goizeko 8-ak baino lehenago utzi behar dira trasteak, zaborra jasotzen den tokian.
  - Abuztuan ez dago Zerbitzu hau.
- Jasotzeko egunak.



Informazioa  
**943 79 33 99**

EKAINA	UZTAILA	IRAILA
A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I
1 2 3 4	1 2	1 2 3
5 6 7 8 9 10 11	3 4 5 6 7 8 9	4 5 6 7 8 9 10
12 13 14 15 16 17 18	10 11 12 13 14 15 16	11 12 13 14 15 16 17
19 20 21 22 23 24 25	17 18 19 20 21 22 23	18 19 20 21 22 23 24
26 27 28 29 30	24 25 26 27 28 29 30	25 26 27 28 29 30
	31	
URRIA	AZAROA	ABENDUA
A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I
1	1 2 3 4 5	1 2 3
2 3 4 5 6 7 8	6 7 8 9 10 11 12	4 5 6 7 8 9 10
9 10 11 12 13 14 15	13 14 15 16 17 18 19	11 12 13 14 15 16 17
16 17 18 19 20 21 22	20 21 22 23 24 25 26	18 19 20 21 22 23 24
23 24 25 26 27 28 29	27 28 29 30	25 26 27 28 29 30 31
30 31		

30 urte bezeroa zerbitzatzen

1970 **30** 2000  
*Urteurrena*



**ZELAIAK**  
OÑATI



## *Sukaldeak*

*... urte askotan goza ditzazun pentsatuta.*

*... granito eta silestonezko gainak.*

*... instalakuntza profesionala, akabera bikainak.*

*... etxetresna elektrikoek ekipamendu osoa.*

*... norberari egokitutako sukaldeek proiektu eta diseinuak.*

*... erreforma integralak gure enpresako langileek eginak obrak lehenbailehen bukatzeko.*

## *eta Bainuak*

*... zure bizi-estiloarekin bat datozenak.*

*... aukera handia komun eta bainuko altzarietan.*

*... leku txikietan prestazio handiak eskaintzen dituzten hidromasajerako bainerak.*

*... bainuko kabinak eta manparak.*

*... txorrotak eta bainuko osagarriak.*



**Erakusketa:**

Santa Marina, 3 - Telefonoa: 943 71 62 81 - OÑATI (Gipuzkoa)